

Irakurle Digitala


Firefox

- Irakurle Digitalaren funtzionamenduaren oinarriak:

Lehenengoz eta behin gogoan izan Irakurle Digitala erabiltzeko Interneterako sarbidea ezinbestekoa dela.

Irakurle Digitala martxan jartzen dugunean nabegatzailean bistaratzen ari garen web orria arakutzen hasten da, esaldiz esaldi. Irakurle Digitalak identifikatzen duen 1. esaldia urdinez nabarmenduko du eta Interneten bidez testua ahotsa bihurtuko duen sistemara bidaltzen du. Hortik gutxira ahots-sintesia egin duen sistemak bueltatu egiten digu entzungo dugun soinua.

Irakurle Digitalak, automatikoki, hurrengo esaldia identifikatuko du eta prozesua errepikatuko da.



- Erabilera:



Irakurle Digitalaren tresna barran 4 osagai daude. Play/Pause botoia, Hizkuntza aukeratzeko konboa, Abiadura aukeratzeko konboa eta produktuaren webgunerako esteka.

1. Nabegatzailean irekiko dugu irakurri nahi dugun web orria edo pdf-a.
2. Zein hizkuntzatan dagoen eta zein abiadura nahi dugun aukeratuko ditugu.
3. Sistema martxan jartzeko **Play** sakatuko dugu testua arakutzen hasteko. Esaldiz esaldi hasiko da testua ahotsa bihurtzen. Zer irakurtzen duen aukeratu nahi badugu **Pause** sakatuko dugu.
4. Orain prest gaude aukeratzeko nondik hasi nahi dugun irakurketa. Sagua erabiliz markatuko dugu non hasi nahi dugun.
5. **Play** sakatuz gero hasiko da irakurketa hautatutako lekutik aurrera.
6. **Play**, **Pause** eta sagua erabiliz jarraituko dugu nahi dugun moduan testua irakurtzen.
7. Beste web orrialde batera bagoaz prozesua hasi behar da berriro.

Irakurle Digitala


LibreOffice

- Irakurle Digitalaren funtzionamenduaren oinarriak:


Lehenengoz eta behin gogoan izan Irakurle Digitala erabiltzeko Interneterako sarbidea ezinbestekoa dela.

Irakurle Digitala martxan jartzen dugunean bistaratzen ari garen testu dokumentua arakatzen hasten da, esaldiz esaldi. Irakurle Digitalak identifikatu duen esaldia urdinez nabarmenduko du eta Interneten bidez testua ahotsa bihurtuko duen sistemara bidaltzen du. Hortik gutxira ahots-sintesia egin duen sistemak bueltatu egiten digu entzungo dugun soinua.

Irakurle Digitalak, automatikoki, hurrengo esaldia identifikatuko du eta prozesua errepikatuko da.



- Erabilera:



Irakurle Digitalaren tresna barran 6 osagai daude. Play botoia, Pause botoia, Stop botoia, Hizkuntza aukeratzeko konboa, Abiadura aukeratzeko konboa eta produktuaren webgunerako esteka.

1. Testu prozesadorean irekiko dugu irakurri nahi dugun dokumentua.
2. Zein hizkuntzatan dagoen eta zein abiadura nahi dugun aukeratzeko dugu.
3. Play sakatuko dugu testua arakatzen hasteko. Irakurketa hasten denean Stop sakatuko dugu.
4. Orain prest gaude aukeratzeko nondik hasi nahi dugun irakurketa. Sagua erabiliz markatuko dugu non hasi nahi dugun.
5. Play sakatuz gero hasiko da irakurketa hautatutako lekutik aurrera..
6. Play , Stop eta sagua erabiliz jarraituko dugu nahi dugun moduan testua irakurtzen.
7. Pause botoia bakarrik erabiliko da eten bat egiteko, ez lekuz aldatzeko.